

Arraztalo eta Aldura Elkarteen mozio proposamena, Pasaiako Udalbatzari aurkezteko, alderdi politikoak deituz onartu dezaten.

MOZIOA

Arraztalo eta Aldura Elkarreak Oarsoaldean gaixotasun psikikoa duten pertsonen alde lanean gabiltza azkeneko urte hauetan. Lan horren helburua pertsona hauen lan eta gizarte integrazioa lortzea da.

Integrazio horretan lan duina edukitzea funtsezkoa da. Desgaitasunen bat duten pertsonentzako lanpostuak sortu eta kudeatzeko tresna nagusietako bat Enplegu Zentro Bereziak dira. Zentro hauen helburua desgaitasuna duten langileek lan produktibo eta ordaindua edukitzea da. Erakunde publikoek zentro hauek era ezberdinetan laguntzen dituzte, desgaitasuna duten pertsonen lan integrazioak dituen zailtasunak eta onurak onartuz.

Gaur egun, Enplegu Zentro Berezi bat sortzea Euskadiko Autonomia Erkidegoan ezinezkoa da, horretarako beharrezkoa den erregistroa eta arautegia garatu gabe dagoelako. Eusko Jaurlaritzaren eta Lanbideren betebeharra den arren, urteak joan eta urteak etorri, legedi hori garatu gabe geratu da.

2013an hasita, Arraztalok eta Aldurak behin eta berriz eskatu diote Eusko Jaurlaritzari beharrezkoa den legedi hori garatzeko. Arraztalo eta Aldurak jarraian agertzen diren jarduerak bultzatu dituzte Eusko Legebiltzarrean eta beste erakundeetan:

- 2013/12/13 Interpelazioa Enplegu eta Gizarte Politikako kontseilariari Legebiltzarrean.
- 2014/02/21 Mozioa eta adostasuna Legebiltzarreko plenoan, Eusko Jaurlaritzari eskatuz Enplegu Zentro Berezien erregistroa onartu dezan.
- 2014/10/27 Idatzizko galdera, erregistroaren inguruan. Dekretu zirriborroa jaso zen erantzunean.
- 2015/10/16 Enplegu eta Politika Sozialen sailburu berriari interpelazioa.
- 2015/10/23 Mozioa eta adostasuna Legebiltzarreko plenoan, erregistroa martxan jartzea eskatuz.
- 2016/06/03 Sailburuaren erantzuna eta dekretu zirriborroa.
- 2016/06/10 Arartekoari eskaera.
- 2016/07/04 Lanbideko zuzendariarekin bilera.
- 2016/09/22 Arartekoaren erantzuna.
- 2017/03 Legebesteko proposamena.
- 2017/05 Idatzizko galdera. Erantzunean Sailburuak dio ezin dela zehaztu noiz aterako den, legedi zirriborroa eragileekin lantzen ari delako.
- 2017/11 Lehendakariak legedia onartuko dela iragarri du agerraldian eta prentsa ohar baten bidez.
- 2017/11 Legebiltzarreko batzordean adostu otsailean hasiko dela tramitazioa eta martxoan onartuko dela.

Egindako ahalegin guztiekin emaitzarik lortu ez dela eta Oarsoaldeko Gaixotasun Psikikoak dituzten pertsonen lan integrazioa duintasunez egin ezin dela ikusirik, UDALBATZA HONI ESKATZEN DIOGU:

- Salatu dezala Eusko Jaurlaritzaren utzikeria desgaitasuna duten pertsonen enplegu politiken inguruan. Estatuko beste edozein tokitan Enplegu Zentro Berezi bat sortu daitekeen bitartean, EAEn hori ezinezkoa da.
- Eskatu dezala desgaitasuna duten pertsonentzako politika aktiboak arautuko dituen dekretua argitaratu, onartu eta neurriak martxan jartzea.
- Eskatu dezala Enplegu Zentro Berezien erregistroa martxan jartzea.
- Gogorarazi diezaiola Eusko Jaurlaritzari eta bertan ardurak dituzten alderdi politikoei, legedi hau onartzearen beharraz, aipatutako erakundeekin dituzten ohiko hartu emanetan.
- Udalbatza honek hartutako erabakiaren berri herritarrei jakinaraztea, ohiko bitartekoen bidez.

Sinatzaileak:

Pedro del Olmo Herrera
Arraztalo Elkarteko Lehendakaria

Javier Macicior
Aldura Elkarteko Lehendakaria

